



## «Zirkulazio-kode» berri bat

Ikasturte honetako egutegian, «zirkulazio-kode» berri bat planteatu dugu, emakumeek munduan bizi duten egoera bidegabea salatzeke asmoz. Horretarako, zirkulazio-seinale hauek erabili ditugu:

- **Debeku-seinaleak (zirkulua):**
  - Emakume askok haurdun geratzen direnean lanpostuari eusteko izaten dituzten zailtasunak erakusten dizkigute.
  - Emakumeek dauzkaten hainbat eragozpen salatzen dituzte; besteak beste, baliabideak lortzeko (energia, ura, elikagaiak), ekipamenduak erabiltzeko (teknologia, makineria) eta autonomia ekonomikoa emango lieketen baliabide ekonomikoak eskuratzeko (kredituak, herentziak, jabetza-tituluak).
- **Arrisku-seinaleak (triangelua):** emakumeen eskubideak urratzen dituzten egoerak adierazten dituzte:
  - Arestian aipatutako baliabideak eskuratzeko eragozpenak.
  - Osasun-arreta egokia jasotzeko zailtasunak. Zailtasun horiek arriskutsuak izaten dira emakumeentzat, bereziki haurdunaldian eta erditzean.
  - Emakumeek diskriminazio-egoeran egiten duten lana; izan ere, askotan, gizonen baino diru gutxiago jasotzen dute lan berdina egin arren, eta lan-merkatuan sartzeko aukera gutxiago izaten dituzte, batez ere seme-alabak izan ondoren. Gainera, emakumeek gizonen baino zailtasun handiagoak izaten dituzte enpresetan zuzendari-lanpostuak lortzeko.
  - Emakumeek etxean egiten duten lanak askotan ez du inolako aintzatespenik jasotzen.
- **Gomendio-seinaleak (laukizuzena):** aipatutako egoera bidegabeak gertatuko ez diren gizartearen alde lan egiteko beharra adierazten dute.

Jarduera honen bidez, gizonen eta emakumeen arteko harremanetan askotan gertatzen diren egoera bidegabeen inguruan hausnarketa eginarazi nahi dugu, eta jarrerak aldaraz ditzaketen alternatibak baloratu. Garrantzitsua da inguruan ikusten ditugun desberdinkeriak eta injustiziak salatzea, eta, horrez gain, halakoak pixkanaka desagertzen joateko aldaketak proposatzea. Horregatik proposatzen dizuegu ariketa hau. Bertan oinarrituz, klipmetraje baten gidioa ere presta dezakete ikasleek, ikasitakoaren berri emateko.

Erakutsi egutegiko infografiak eta pentsa dezatela zer adierazten digun seinale bakoitzak.

- Entzun al duzue inoiz emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako albisterik?
- Zer adierazten digute arrisku-seinaleek? Entzun al duzue inoiz halako egoerekin lotutako berririk?
- Zer adierazten digute debeku-seinaleek?
- Neskek mutilen aukera berberak al daukate eskolara joateko? Herrialde guztietan gertatzen al da hori?
- Zuen ustez, garrantzitsua al da genero-berdintasunari dagokionez gure «zirkulazio-kodea» aldatzea? Zergatik?

Jarri ikasleak taldeka, eta esan aukeratzeko aztertu berri duzuen debeku-, arrisku- edo gomendio-seinaleetako bat, eta gidoi bat prestatzeko, seinale horrek taldeko kideen iritzian adierazten duenaren inguruan.